

ARGIA SARIAK 2009

Interneteko Sareko Argia Saria

2009ko Internet alorreko ARGIA SARIA nori eman erabakitzen hasi ginenean, berehala etorri zitzaigun burura modu irekian jarduten duen lan talde bat. Trukean ezer eskatu gabe, hainbat tresna informatiko euskaratu dituzte, tartean, Firefox 3 Interneteko nabigatzailea, joan den urteko ekainean munduko hizkuntza garrantzitsuenekin batera euskaraz eskuratu ahal izan genuena.

Geroz eta jende gehiagok erabiltzen du Firefox software librea ere, bide oparoa egiten ari da gure artean, besteak beste, saritu behar ditugun pertsonen lanari esker.

Komunitate aktiboa osatzen dute, komunitate euskaltzalea eta libertatearen zalea.

Softwarearen bidez euskarari dimentsio globala eman diotelako, 2009ko Interneteko ARGIA SARIA LIBREZALE lan taldearentzat da.

Guztien izenean, bi lagun etorri zaizkigu saria jasotzera. Etor daitezela, beraz Julen Ruiz Aizpuru eta Piarres Beobide.

Prensa Idatzia

2009.eko Prentsa Idatziaren ataleko ARGIA SARIArekin ez dugu kronikagile bat saritu nahi, edo beharbada, bai. Ez dugu kaleko erreportari baten lana nabarmenduko, edo, nondik begiratzen den, agian bai. Analista batek ez du saria eramango, edo euskaraz lanean ari den analista onena sarituko dugu.

Zaila da PRENTSA IDATZIKo ARGIA SARIA irabazi duen pertsonaren lana sailkatzea.

Goizeroko irribarrea da bera, kolpean harrapatu, eta pentsarazi egiten digute haren gogoetek. Herri honen parodiagile fina da, eta maisua, inork baino hobeto erakutsi baitigu prentsa ez dela letrekin bakarrik egiten, komiki-zintak ere kazetaritza generoa direla, eta askotan, albisteak interpretatzeko ezinbesteko erreminta.

Berria egunkarian irakurtzen dugu egunero, baita *Nabarra*, *Aizu!*, *Karrika* eta *Xabiroi* aldizkarietan ere.

Lan horien guztien balioa aitortu nahi dugunez, 2009ko PRENTSA IDATZIKo ARGIA SARIA ematea erabaki dugu, Patxi Huarte, ZALDI EROari.

Publizitatea

Aurten PUBLIZITATEko ARGIA SARIArekin saritu nahi dugu kanpaina oso bat, izan duen eraginkortasunagatik eta herritarren parte hartzea bultzatzeko egin duen ahaleginagatik.

Garapen jasangarria mundu guztiaren ahotan dabilen honetan eta zaborren kudeaketa geroz eta arazo zailagoa bihurtzen ari denean, formula berriak bilatzeko ahalegina egin dute eta erakutsi dute, publizitateak balio dezakeela kontzientzia ekologikoa sortzeko ere.

Enpresekin, dendariekin eta herritarrekin lan egin dute soinez soin, gertutik, kalekaletik, helburua garrantzitsua delako: eguneroko ohitura txiki batzuk aldatuta, herritarren bizi-kalitatea hobetzea eta naturarekin harreman hobea izatea.

Horregatik guztiagatik, 2009ko PUBLIZITATEko ARGIA SARIA irabazi du atez-ateko zabor bilketa sustatzeko USURBILGO UDALAK egin duen "MARGOTU EGUNAK" kanpainak.

Betor Xabier Mikel Errekondo Usurbilgo alkatea saria jasotzera.

Telebista

Egon zen garai bat euskara etxeko sukaldean baino hitz egiten ez zena. Kontuz ibili behar zen kalean, hizkuntza debekatua zen gurea, eta beharbada horregatik, sasoi ilunak argitzen joan direnean ere, euskaldunok lapiko arteko giroa maitatzen jarraitu dugu.

Orain, erronka berriak ditu euskarak. Kalean geroz eta hizkuntza gehiago entzuten dugu. Kontinenteak etorri dira euskaldunon artera, jatorri ugariko herritarrak, mila eta bat zapore diferente, mundu berria sortzeko.

Eta mundu berri honetan, elkar ulertu nahi badugu, sukalde lana egin behar dugu.

Horregatik, TELEBISTA alorreko ARGIA SARIA eman nahi diogu gure herrian bizi diren etorkinen kulturak elkarriketaren eremu intimoenetik, sukaldetik, nolakoak diren erakutsi dizkigun programa bati...

2009ko TELEBISTAKo ARGIA SARIA Erlo Telebistako GURE SALTSAN programarentzat da.

Betor Iban Bengoetxea saria jasotzera.

Irratia

IRRATIA ataleko ARGIA SARIA bizi dugun garai honen ispilua da.

Burtsan hasi zen gainbehera eguneroko bizitzaren alor guztietara iristen ari da. Sosik gabe geratzen ari dira familia asko, langileak gorriak ikusten ari dira lanpostuari eusteko. Ematen du ez dakigula urtea nola bukatuko dugun ere.

Munduko ekonomiaren gaixoaldi hau ulertzea ere kostatzen ari zaigu. Eta hedabideen lana horixe da, hain zuzen ere, informazioa garbi eskaintzea, herritarrek mundua hobeto ulertzeko.

Horregatik, garrantzi handia du gure hurrengo sarituaren lanak. Euskadi Irratian ekonomiaz egiten dituen analisiak oso argigarriak izaten dira, edozein entzulek erraz ulertzeko modukoak eta, era berean, sakonak eta zorrotzak.

Irratiko lanarekin aski ez, eta prentsan ere momentu ekonomikoaren azalpenak eskaintzen dizkigu.

ARGIAAn argitaratu ditu artikuluak; baita *Berrian* ere. Eta ETB1eko ikusleek ere ezagutzen dute bere lan egiteko modu txukuna.

Guztion kezka bihurtu den krisi ekonomikoaz estilo dotore eta ulergarrian egindako analisiengatik, 2009ko IRRATIA ataleko ARGIA SARIAREN irabazlea JOSEBA BARANDIARAN da.

Merezimenduzkoa

ARGIAk bere 90. urteurrena ospatzen duen honetan, sari bereziz agurtu nahi dugu ARGIAAn egin duenaz gain, euskarazko prentsan eta kultur munduan norbait izan den eta baden gizon bat.

Aldaketa, ilusio eta nahasmendu handiko garaiak egokitu zitzaizkion euskarazko kulturgintzari eta orohar euskarazko prentsari 1970eko hamarkadan.

Ikurriña edukitzea bera delitu zen garaietan, Francoren diktadurak euskarazko izenak jartzea bera ezinezko egiten zuenean, ez partidu politikorik eta ez sindikaturik ez zenean, legezko hiru hitzengatik gobernuak bat espexera zezakeenean, edo aldizkari bat itxi edo multa gogorrez zigortu, garai trumoiatsu haietan kazetaritza egin zuen gure gizonak.

Gaur omendu nahi dugun gizona bada urte batzuk erretretan dela, baina orain dela bi urte arte eten gabe idatzi du prentsan.

Luis Alberto Aranberrik honela dauka laburtuta gizonaren meritua: "1965etik aurrera euskal kazetaritzan koskortu ginen gazteon maisurik maisuena izan zen". Horra saria merezitzeko adina.

Garai haiek ezagutu ez zituen gazteak ezizen eta pseudonimoetan arakaturik bilatu beharko du gure gizonaren prosa nahi badu juzgatu: Errialde, Mutiozabal, Irastortza, Iraola, M.A...

Azken pistatzat ezan dezagun Felipe Gonzalez oraindik gogoratuko dela gure gizonaz: prentsaurreko batean, 1976an, euskaraz egin zion galdera, eta Gonzalezen emazteak geroago isekaz ordaindu, esanaz: "Gora Euskadi Nazi".

Bejondaizula, MIKEL ATXAGA.

Lasarte-Orian, 2009ko urtarrilaren 30ean.